DEUC GIDALIBURUA


LEHENENGO URRATSA

Iragarkiaren fitxan "Xedea" hegaltxoan sartu.


BIGARREN URRATSA


DEUC fitxategi elektronikoa (XML) PCan deskargatu.

Horretarako DEUC fitxategiaren estekan klikatu




"Fitxategia deskargatu" botoia sakatu:





HIRUGARREN URRATSA

Fitxaren **"DEUC online zerbitzua"** estekan sakatu.





Jarraian, ondorengo pantaila agertuko da:



HIRUGARREN URRATSA

¿Nor zara zu? galderari erantzuterakoan **"Operadore ekonomiko bat naiz"** erantzuna aukeratu beharko da.



LAUGARREN URRATSA

¿Zer egin nahi duzu? galderari erantzuterakoan "**DEUC bat inportatu**" erantzuna aukeratu beharko da.




BOSTGARREN URRATSA

"DEUC bat inportatu" aukeratzerakoan aldez aurretik ordenagailuan deskargatutako xml dokumentua kargatzeko aukera agertuko da.




"Ikertu" botoia sakatu eta xml fitxategia aukeratu. Adibidean, aipatutako fitxategia Mis Documentos barruan dagoen LICITACIONES karpetan gordeta dago.



"Ireki" botoian sakatu:

SEIGARREN URRATSA

Herrialdea aukeratu.



ZAZPIGARREN URRATSA

Bete beharreko DEUC formularioa agertuko da.

DEUC formularioa sei ataletan bananduta dago, eta atal bakoitza, era berean, sailetan bananduta dago:

Parte I. Información sobre el procedimiento de contratación y el poder adjudicador o la entidad adjudicadora.
Parte II. Información sobre el operador económico (empresa licitadora o candidata).
- Sección A: Información sobre el operador económico.
- Sección B: Información sobre los representantes del operador económico.
- Sección C: Información sobre el recurso a la capacidad de otras entidades.
- Sección D: Información relativa a los subcontratistas en cuya capacidad no se base el operador económico.

Parte III. Criterios de exclusión:
- Sección A: Motivos referidos a condenas penales.
- Sección B: Motivos referidos al pago de impuesto o de cotizaciones a la Seguridad Social.
- Sección C: Motivos referidos a la insolvencia, los conflictos de intereses o la falta profesional.
- Sección D: Otros motivos de exclusión que pueden estar previstos en la legislación nacional del Estado miembro del poder adjudicadora o la entidad adjudicadora.

Parte IV. Criterios de selección:
- Sección α: Indicación global relativa a todos los criterios de selección.
- Sección A: Idoneidad
- Sección B: Solvencia económica y financiera.
- Sección C: Capacidad técnica y profesional.
- Sección D: Sistemas de aseguramiento de la calidad y normas de gestión medioambiental.


Parte V. Reducción del número de candidatos cualificados.
Parte VI. Declaraciones finales.

NOLA BETE DEUC FORMULARIOAREN ATAL EZBERDINAK:

Pantaila batetik bestera mugitzeko **"Hurrengoa"** edo **"Aurrekoa"** botoia sakatu beharko da.



DEUC bat era egokian inportatzeko Hasiera, Prozedura, Bazterketa, Aukeraketa eta Amaiera pantailetatik igaro beharko da.



I. Atala: Kontratazio-prozedura eta ahalorde edo erakunde esleitzaileari buruzko informazioa

Atal hau beteta agertuko da. Beraz, ez du ezer bete beharko.



II . Atala: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

A (enpresaren datuak) eta B (lizitazioan enpresaren ordezkariari buruzko datuak) sailak bete beharko dira. C saila soilik beteko da administrazio-baldintza partikularren orriaren 29 klausulan eskatzen diren kaudimen baldintzak betetzeko beste erakundeen kaudimen edota bailabideetaz baliatu ezkero; eta D saila, pestazioaren parte bat azpikontratatzea aurreikusita dagoenean eta karatulan (15 klausula) espresuki adierazi denean informazio hori eman behar dela.


Zuzen bete dadin begiratu DEUCari buruzko administrazio-baldintza partikularren orriaren Erantsian dauden instrukzio eta arigibideak.

III. Atala: Bazterketa-arrazioak

DEUCari buruzko administrazio-baldintza partikularren orriaren Erantsian dauden instrukzio eta arigibideak kontsulta dezake, non DEUCen bildutako bazterketa-arrazioen arteko korrespondentzia eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginan aurreikusitako esleipenen debekuak adierazten dira.

Bazterketa-arrazoi bakoitzan egindako galderetan "bai" edo "ez" erantzun behar da eta informazio hori formatu elektronikoan baldin badago. Formatu elektronikoan egon ezkero, URLa eta informazio horretara heltzeko kodea adierazi beharko da.

Adibidez:




IV. atala: Aukeraketa irizpideak

Edo gaitasun eta kaudimen baldintzak.
IV. atal honetan agertzen diren sail guztiak bete behar dira.

Arau orokor bezela A (Egokitasuna, hau da, egiteko gaitasuna eta, bere kasuan, gaikuntzak edo baimenak), B (kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa) eta C (kaudimen teknikoa edo profesionala) sailak bete beharko dira. Eta, administrazio-baldintza partikularren orriaren karatulan, kaudimen tekniko bezala, kalitatearen bermatzearen edo ingurumen-kudeaketaren arauaren betetzearen ziurtagirien aurkezpena eskatu baldin bada, D saila bete beharko da.

D saila bete behar ez bada, saila modu honetan agertuko da:






D saila bete behar bada (adibidez kalitate-bermatze ziurtagiri bat izatea eskatzen da), saila modu honetan agertuko da:



Salbuespen modura, aurre baldintzen egiaztatzeko moduari buruzko administrazio-baldintza partikularren orriaren 29 klausulan adierazi baldin bada, IV. atalan α saila betetzearekin nahikoa izan daiteke. "Bai" edo "Ez" erantzun beharko da aukera irizpide guztiak betetzen diren galderari erantzunez.



Gainerako sailak ondorengo moduan agertuko dira:



V. Atala: Kualifikatutako hautagaien murrizketa

V. atala soilik bete beharko da esleipen prozedura murriztua edo lizitazioa negoziazioarekin baldin bada.

VI. atala: Amaierako adierazpenak

Ez du ezer bete behar formularioaren atal honetan.

ZORTZIGARREN URRATSA

Formularioa betetzerakoan, "Inprimatu" botoia sakatu formulario osoa pantailan ikusteko (ez da inprimatzeko).




BEDERETZIGARREN URRATSA

Puntu honetan formularioa inprimatu daiteke (PDF formatuan) edo XML formatuan esportatu.


Inprimatu

Microsoft Windows-en DEUC elektronikoa Chrome bidez deskargatu daiteke, PDF inprimagailu integratua bait dauka. Bestela, beste edozein online bidezko doako PDF dokumentu sortzaile erabil daiteke.


Chrome bidez egiteko saguaren eskuineko botoian sakatu eta **"Inprimatu"** aukeratu.



Inprimakiaren kokalekua aldatu.




"PDF moduan gorde" aukeratu.






Aukeratu PDFa gorde nahi duzun kokalekua eta, nahi izan ezkero, izena aldatu daiteke.



MAC OSX edo Linux-en DEU elektronikoa edozein nabigatzailetan inprimatu daiteke.

Esportatu


Formularioaren DEUC fitxategia ordenagailuan deskargatzeko **"Esportatu"** botoia sakatu beharko da.



Leiho berri bat irekiko da, xml fitxategi bat ireki edo gorde nahi den galdetuz. "Gorde" botoia sakatu eta "Gorde" edo "Gorde bezala" edo "Artxiboa gorde" aukera aukeratu.



Fitxategia gorde nahi den kokalekua aukeratu eta, nahi izan ezkero, izena aldatu daiteke.



HAMARGARREN URRATSA

Lizitazio elektronikoan sartu eta eskaintzari PDF edo XML fitxategia erantsi, aurkeztutako gainontzeko dokumentazioarekin batera zigilatuta geratuz.